

DORREEN ERREBALA

EL ARRABAL DE LAS TORRES



Gune honetan, San Josepeko Gurutzearen atzealdean, Astillero kalea eta Itziarra joateko bide zaharra banatzen diren tokian, San Jose edo, herritarren artean ezagunagoa den bezala, San Josepe basiliza egon zen 1970 arte. Ez dakigu noiz eraiki zuten; baina, 1627ko salerosketa-dokumentu batean Zarautz dorreko santutxoak aipatzen da. Hemen hasten da Kale Zaharra; horrela ere ezagutzen da Astillero kalearen zati hau, Debako herrigunea eta errege-bidea lotzen dituen zatia alegia. Errege-bideak Sasiolako komentuko ospitalera eramaten gaitu, frantziskotaren Gipuzkoako bigarren komentura. Kale zati txiki honetan, hainbat dorre egon ziren, guztiak XV. mendeakoa. Izan ere, Agirre eta Sasiola dorreen artean ilaran zegoen dorre-multzo hari "Dorreen Errebala" esaten zioten garai batean.

SAN JOSEPEKO GURUTZEA



San Josepeko gurutzea. Crucero de San Josepe.

San Josepeko gurutzea XVIII. mendeko gurutzeen adibide bikaina da, eta garai bateko San Jose basilizaren lekuko bakarra gainera. Gurutzeak 3,83 m-ko altuera du, hareharriz eginda dago, eta alboetako batean, eraiki zuteneko urtea izan litekeena dauka zizelkatuta: "Año 1738". Barroko estiloko gurutze honek Kristoren Pasioko tresnak erakusten dizkigu. Goi-goian, "INRI" ikus dezakegu. Zeharraga horizontalean agertzen dira Kristoren saiheisa zultzeko erabilitako lantza iltzeekin, arantzazko koroa eta Jesusi behazuna eta ozpina eskaintzeko erabilitako kanabera eta esponja. Zutoin bertikalean ageri dira Jesusen gorpua gurutzetik jaisteko erabilitako eskailerak eta Veronikaren oihala; iltzeak ateratzeko erabilitako mailua eta tenazak; zigortzeko erabilitako pilarea eta latigoak; Pedrok Malcori belarria mozteko erabilitako ezpata; Pedrok Jesus hiru aldiz ukatu zuenean kantatu zuen oilarra; eta Kristo atxilotu zuten soldaduek erabilitako linterna.

ZARAUTZ DORREA

Zarautz dorrea leinu garrantzitsu batena izan zen eta duela urte asko desagertu zen. Dorrearen lekuan eraiki zuten eraikinean dorre zaharraren hainbat elementu interesgarri berrerabili ziren: arku zorrotzeko ate gotiko bat eta hainbat leiho eta mentsula.

ALOS DORREA edo ALOSTORREA

Alos dorrea edo Alostorrea Juan Venancio Araquistainek betikotuta utzi zuen "Gau-Illa" elezharrean. Elezaharra garai bateko elegia batean oinarritutako obra bat da eta bertako trama dorre zahar hartan garatzen da.

SASIOLA DORREA



Sasiola dorrea. Torre Sasiola.

Sasiola dorrea errebalaren amaieran dago, eta eraikinak oinplano angeluzuzena du, lau isurkiko estalkia eta harri landuz eginiko fatxada. Eraiki zutenetik aldaketa handiak jasan ditu, eta zoritxarrez, galdu egin du hasierako itxura. Azken eraldaketa tropa frantsesek erre zutenean gertatu zen, 1813an; tropa napoleonikoek kuartel moduan hartu zuten, eta horma batzuk baino ez ziren geratu. Arku zorrotzeko hainbat leiho geratzen dira oraindik fatxadetan, hormatuak eta agerian, eta baita harrizko irtengune batzuk ere, azkeneko solairuan edukiko zuen zurezko hegalarren sostengu izan zirenak; halako dorreetan, izan ere, hegalak defentsarako elementuak izaten ziren.

Debako, bai eta Euskadiko eta Gaztelako Erresumako familia garrantzitsu eta aberatsenetako batena zen. Dorre honetan jaioko ziren, seguru aski, Jofre Ibañez de Sasiola eta Maria Estibaliz de Sasiola. Lehena Gaztelako Errege Kontseiluko kide izateaz gain Gaztelako Koroaren enbaxadore ere izan zen Londresen, Errege Katolikoaren garaian. Bigarrena 1550ean jaiotzen zen eta euskaraz idatzitako lehen olerkien egiletzat hartzen da.



Garai bateko Zarautz dorrearen elementu berrerabiltzak. Restos reaprovechados de la antigua Torre Zarautz.

En este lugar, detrás del Crucero de San Josepe, en la bifurcación entre la calle Astillero y el antiguo camino a Itziar se ubicó hasta 1970 la ermita de San José, más popularmente conocida como de San Josepe. Se desconoce la fecha de su construcción, aunque en un documento de compra-venta de 1627, se hace mención al humilladero de la torre Zarautz. Aquí comienza la Kale Zaharra o Calle Vieja, que es como también se conoce a este tramo de la Calle Astillero que une el casco de Deba con el Camino Real, camino que nos conduce al viejo Convento Hospital de Sasiola, segundo convento franciscano de Gipuzkoa. En este pequeño tramo de calle existieron varias torres, todas ellas del siglo XV, y que alineadas entre la de Aguirre y la de Sasiola conformaron lo que en el pasado se conoció como "Arrabal de las Torres".

CRUCERO DE SAN JOSEPE



Lau xehetasun Pasiola irudikatzen duten tresnekin. Cuatro detalles con los instrumentos representativos de la Pasión.

El Crucero de San Josepe es un magnífico ejemplar de crucero del siglo XVIII y el único testigo de la antigua ermita de San José. De 3,83 m de altura y construido en arenisca, en uno de sus costados tiene tallada la fecha en la que probablemente fue levantado: "Año 1738". Esta cruz barroca muestra los instrumentos de la pasión de Cristo. En lo más alto, podemos ver el "INRI". El travesaño horizontal muestra dos grandes lanzas cruzadas con clavos, la corona de espinas, la caña y la esponja con la que la hiel y el vinagre fueron ofrecidos a Jesús. El madero vertical muestra las escaleras utilizadas para descender el cuerpo de Jesús y el paño de la Verónica; el martillo y las tenazas utilizadas para extraer los clavos; el pilar y los látigos utilizados en la flagelación y la espada utilizada por Pedro, cuando cortó la oreja a Malco. Por último, el gallo que cantó cuando Pedro negó a Jesús por tres veces y la linterna utilizada por los soldados que arrestaron a Cristo.

TORRE ZARAUTZ

La torre Zarautz, perteneciente a un importante linaje, desapareció hace muchos años. Al construir el edificio levantado en su lugar se reutilizaron interesantes elementos de la antigua torre: una puerta gótica con arco apuntado y varias ventanas, así como algunas ménsulas.

TORRE ALÓS o ALOSTORREA

La torre de Alós o Alostorrea quedó inmortalizada por Juan Venancio Araquistain en la leyenda "Gau-Illa" (Noche de muerte), obra basada en una antigua elegía cuya trama se desarrolla en aquella antigua torre.

TORRE SASIOLA

Situada al final del arrabal, la torre de Sasiola es un edificio de planta rectangular, tejado a cuatro aguas y con fachada totalmente construida de piedra trabajada. Ha sufrido grandes cambios desde sus orígenes, perdiendo desgraciadamente su imagen primitiva; uno de los últimos tuvo lugar tras ser incendiada por las tropas francesas en 1813, cuando la torre sirvió como acuartelamiento de las tropas napoleónicas y quedó reducida a cuatro paredes. Aún conserva algunas ventanas de arco apuntado, tapiadas y visibles en sus fachadas, así como unos salientes de piedra que sirvieron de apoyo al voladizo de madera que debió tener en su último piso y que en estas torres se utilizaba como elemento de defensa.

Perteneció a una de las familias más notables y de mayor poder económico no sólo de Deba, sino también de todo el País Vasco y del Reino de Castilla. Muy probablemente, en esta torre nacieron Jofre Ibañez de Sasiola y María Estibaliz de Sasiola. El primero, además de miembro del Consejo Real de Castilla, fue el primer embajador de la corona castellana en Londres en tiempos de los Reyes Católicos. La segunda, nacida hacia 1550, está considerada como la autora de los primeros poemas escritos en euskara.



San Josepe basiliza, XX. mendearen hasieran (argazkia: Pascual Marin). Ermita de San Josepe, a principios del siglo XX (Fotografía: Pascual Marin).



Alostorreako elezahararen inguruko ilustrazioa. Ilustración referente a la leyenda de Alostorrea.

Informazio gehiago:



Para más información:



Geoparkea
Euskal Kostaldean - Costa Vasca



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



EXPLORE
SAN SEBASTIAN
REGION



Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura

Costa Vasca Geoparque mundial de la UNESCO

Hezkuntza Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea

Euskal Kostaldean UNESCOren munduko Geoparkea

